



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona. : 943-313030 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

**Martxoaren 14an, larunbatean,
emakume afaria!!!**

**KONTU KONTARI
Elkarrizketa:
Joakin Otamendi**

Kaixo herrikide!!!

Eta urte berri on! Izan ere 2009ari bi hilabete kendu dizkiogun honetan heldu zaizue aurtengo lehen Orri Informatiboa. Eta hori horrela izanik, orain arte pasatakoaren erreparatxoa egitea tokatzen zaigu.

Zuen begiekin ikusi ahal izan duzuen bezala, udazken eta negu hotzak egin eta egi-ten ari zaizkigu. Aspaldiko elurterik eta euriterik gogoronek bizitu ditugula esan daiteke. Igeldo txurituta ikusi dugu batean baino gehiagotan. Ondoko argazkia bezalako irudiak utzi dizkigu aurtengo neguak.



Pixkanaka, konturatzerako, urtarrila atzean utzi eta otsaila ere pasa dugu. Otsailarekin batera, Musik@artek antolatutako zenbait ikastaro martxan jarri ziren. Dagoeneko, epe motzeko ikastaro batzuk amaitu ere egin dira. Bitxigintza, esaterako. Baina beste batzuek aurrera jarraitzen dute. Batukadak, aerobikak...



Ospakizunei dagokienean, herrian ez, baina Donostian San Sebastianak izan ditugu. Eta horiekin bat eginez, Antiguako festak. Iaz bezala, aurtengo ere harri-tiratzeaz gozatzeko aukera izan zuen jendeak. Igeldo, Antigua eta Añorgaren arteko norgehiagoka izan zen, nabarmendu beharreko berritasun batekin: talde mixtoak osatu zituzten guztiek. Eta oraingoan ere, argi geratu zen sasoiko gazteak ditugula herrian, irabazleak gure neska-mutilak izan baitziren.



Elkarrizketa: Joakin Otamendi

Gizonezkoa, aita, Igeldon bizi den usurbildarra, Buena Vistako langilea... Ezaugarri askok definitzen dute Joakin Otamendi. Baina ezaugarri horiez gain, badu bera dena are gehiago definitiarazten duen zaletasun bat. Landareetarako zaletasuna, hain zuzen ere. Batez ere sagarrondo mota ezberdinak ditu gustuko. Zaletasun horren emaitza udazkeneko azokan ikusi ahal izaten dugu. Eta orain, sagardo denboraldia dela aitzakiatzat hartuta, bisita egitea erabaki dugu sagarrei dagokien mundu horretan gehiago murgiltzeko.

“Aurtengoa gehiegizkoa izan da, sagarrak ezin saldu ibili gara”

Noiz hasi zinen sagarrondo ezberdinak jartzen? Igeldora etorri nintzenean. Beti izan dut afizioa eta 1983 urte inguruan, nire aita, anaia eta hiruron artean lurzoru hau erosi genuen. Hala ere, hasieran orain dugun lur-zatiaren erdia soilik erosi genuen. Sasi eta larrak garbitu eta segituan jarri nituen lehenengo sagarrondoak. Pixkanaka orain daukan itxura hartu arte.



Urte guztian izaten al da zeregina?

Sagar biltzearen ostean, urri-azaroa amaitzean, lasaitasun pixka bat izaten da, baina gainerakoan, beti dago egiteko zerbait. Garai honetan, esaterako, zuhaitzak kimatzen aritzen gara. Oraingo ilbeheran eta hurrengokoan izaten da garaia. Tratamendua ematen ere, hau da, kobrea botatzen orain hastekotan naiz. Loratzen hastera doazenean. Baina sagarrondo bakoitzak bere garaia du, izan ere, ernamuiak %50 handitutakoan eman behar izaten zaie eta nik mota ezberdineko sagarrondoak ditudanez, lan konplexuagoa dut. Arretaz ibili behar izaten dut bakoitzari noiz tokatzen zaion jakiteko. Gaitzen eta zorrien aurkako botika hamabost egunetik behin bota behar izaten da. Eta horrez gain, belarra moztu behar!

Fruitua ateratzen denean amaitzen da zainketa?

Orduan arren kontrako tratamendua eman behar da. Maiatza-ekaina inguruan. Hektarea bakoitzeko tranpa bat jartzen da, baina ez da hori bakarrik. Tximeleten hegaldia hartu behar da kontuan tratamendua benetan eraginkorra izango bada. Eta hori jakiteko, temperatura aztertu behar izaten da eta kalkulua egin. Baina eguraldiak aldaketak eragin ditzake...

Eta zainketaren ostean, biltzea.

Uztailean hasten gara lehenengo sagarrak biltzen eta sagar biltzea urri-azarora arte luzatzen da. Errezila eta urtebi handia izaten dira azkenak biltzen.

Bakarrik aritzen zara?

Hala esan liteke. Aitak tarteka laguntzen dit eta lehengusua eta Laxaro ere azaltzen dira noizbehinka. Anaia, berriz, poltsa hutsarekin etortzen da. Dena dela, kimatzeko pertsona bat ekartzen dut. Bakarrik egiteko oso lan gogorra da.

Nola antolatzen zara?

Arratsaldero, Buena Vistatik atera eta hona etortzen naiz jarraian. Zuhaitzak, landareak zaindu, zakurrak paseatu, oiloei jaten eman eta osterara Buena Vistara itzultzen naiz 19:00etarako. Belarra mozteko, esaterako, hiru arratsalde behar izaten ditut.

Zenbat sagar mota dituzu?

Guztira 40bat. Gehienak Urtebi handia eta Errezilarenak ditut. Besteetatik bizpahiru. Lehenengotarikoa jartzen San Pedro sagarra izan zen. Gerora, Grand Smith, Reina Reineta, King Davis, Jumbo... jarri ditut. Azken horietatik 700g-ko sagarrak lortu izan ditut! Azokara eraman nituen iaz. Aurten, berriz, Elstar motatakoak jarri ditut. Mahairako, jateko oso sagar goxoak dira. Oso urtsuak.

Sailkatuta dauzkazu?

Ez zehazki. Tokia dudan lekuan jartzen ditut. Hori bai, gutxi gora-behera paper batean apuntatuta dauzkat. Dena dela, batzuetan apuntatzea ahaztu egiten zait eta gero dudatan ibiltzen naiz.



Urtero jartzen duzu mota berriren bat?

Berriren baten jakitun banaiz eta tokia baldin badut, bai!

Nongoak dira sagarrondo mota horiek?

Herbeheretar eta Estatu Batuar jatorriko sagar mota batzuk badituz, baita Frantziakoak eta Asturiaskoak ere. Baina beste asko hibridoak dira. Mota ezberdinen nahasketak.

Zeintzuk dira euskal sagarrak?

Pelestina, Errezila, Urtebi handia, Urtebi txikia, Patzoloa, Mozoloa... azken horiek gezak dira. Itxuraz kristorenak izaten dira, baina jateko zozoak.

Sagardorako zein mota izaten da hobereena?

Esaten dutenez sagar gaziak eta gezak nahastu behar dira eta proportzioan gaziak gehixeago.

Aurten polemika izan da. Sagardotarako kanpoko sagarra ekarri beharrean bertakoa kontsumitu behar dela eta ez dela...

Noski, hemengo sagarra bultzatu nahi da, baina kontuan hartu behar da aurten sagar asko izan dela. Datorren urtean, ordea, ez baldin bada sagar nahikorik, orduan zer? Zaila da. Gainera, sagardogileek esan dutenez bertako aurtengo sagarrak gozo gutxiak atera dira.

Eta kanpoko sagar horiek nongoak izaten dira?

Normalean Asturiasekoa eta Galiziakoa. Frantziatik, Normandiatik ere ekartzen da.

Sagar guzti horiekin zer egiten duzu?

Itxura politekoak dendetan saltzen ditut. Angel Andresen, Mikeletesen Iñaki harategian, Tolosan... saldu izan ditut. Gainerakoak, txikiak eta itxuraz hain politak ez direnak sagardotara bideratzen ditut. Bestalde, pixka bat ukituta dauden sagarrak aprobetxatzeko irasagarra (membrillo) eta konpota egiten dut. Etxerako eta Buena Vistan saltzeko izaten dira.

Aurten sagar ugari izan da, urte ona ezta?

Bi urtetik behin izaten da sagarra ugari, baina aurtengoa gehiegizkoa izan da. Oraindik ere pila dago. Gutxi dagoenean ongi saltzen da, baina guztiek sagarrak dituztenean zaila izaten da norberarenak saltzea.

Zeuk egiten al duzu sagardorik?

Egia esan badauzkat bi tolare, baina oraindik montatzeke. Gustura egingo nuke, baina denbora eta tokia behar. Baserri handi bat falta! Dena dela, sagarrak saltzen dizkiedan sagardotegiei etxerako sagardoa eskatzen diet probatzeko.

Sagarrondoez gain baduzu beste fruta-arbolik?

Bai, bai. Limoiak, laranja, kiwiak, udareak, brioioiak, melokotoiak, paraguaiok... Azken horiek lortzea kosta zait. Lehengo urtera arte ez zidan fruiturik eman. Etsita ere banengoen eta sagarrondo bat jarri nion aldamenean. Eta hara, fruituak ematen hasi! Ikaragarri goxoak eman dizkit.

Horiez gain, txakolina egiteko mahatsondoak dauzkat.

Hondarribia, Albariñoa, Verdejoa eta Moskatela.

Afizioarekin jarraituko duen norbait ba al duzu?

Semeari ez dio grazia handirik egiten eta ez dut uste inor izango denik. Lan handia egin behar da hau mantentzeko eta afiziorik ezean...



Bota puntua

ONDASARTE, DARWIN ETA "ANIS DEL MONO"


Ondasarteko behiak zergatik dira zuri-beltzak? Hautespenerengatik. Zuri-beltzen esne-kopurua eta kalitatea egokiak direnez (...), arraza hori aukeratzen -hautatzen- dute esne-ekoizleek haien ustiapenerako. Horrela, zuri-beltzen esnea gizakion gustukoa delako (besteak beste), gure ondoan jarraitzen dute behi horiek. Ukuilutik kanpo, naturan, antzeko zerbait gertatzen da, baina hautatzaileak ez dira esne-ekoizleak; inguruneke baldintza gogorrak, baizik. Horri esker (besteak beste) bizi dira gure inguruan ditugun animaliak; bizidunak, orohar. Hautespen naturalak (besteak beste) egin gaitu garen bezalakoak, baita gu geu ere. Duela 150 urte jakin genuen hori, Charles Darwinek argitu zigun. Eta, bizirik balego, 200 urte egingo lituzke aurten; beraz, zorionak Darwin!

Darwinek beste gauza garrantzitsu bat ere esan zigun: pertsonak eta tximinoek arbaso ber-bera dugu. Makina bat bertso aterako zizkioten gajoari! Irain eta txisteen adibide gisa, "anis del mono" famatua: haren logoan ageri den gizona Darwin bera da, tximino itxura duela. Bada, denborak arrazoia eman dio Darwini. Hark defendatu zuen hautespen naturalak eboluzioa azaltzeko balio du oraindik, eta gizakiak eta tximinoek eta gainerako bizidunok arbaso berdina dugula zalantzarik ez dago, gaur egun. Genetikak erakutsi digu hori (ai, Darwin, genetika ezagutu izan bazenu!). Baina genetikak eboluzioa ulertzen laguntzen duten frogak eman

arren, oraindik badaude gure artean kreazionismoan sinesten dutenak. Hau da, Jainkoak sortu gaitu guztiok; garen bezalakoxeak baita sortu ere. Darwini bertsoak atera zizkioten haiek, beraz, bizirik diraute. Eta haien ideiek ez dute eboluzio-natu, bere hartan jarraitzen dute. Gainera, gizakia jartzen dute guztien gaineratik. Gu gara munduaren bihotza. Gainerako bizidunak beheragoko maila batean daude. Eboluzioa onartzeak ekartzen du bizidun guztiok -pertsonak, zerriak, zizareak...- maila berean jartzea, eta hori, batzuentzat, pentsaezina da. Estatu Batuetako hainbat ikastetxetan eboluzioa ez irakastea erabaki dute. Eboluziorik gabe ezin dira ulertu botanika, ekonomia, zoologia, ekologia.... Euskal Herrian ere bada Jainko-sortzailearen ideia defendatzen duenik. Kontuz, mesedez! Eboluzioa ez da sinesmen bat, gauza erreala da, gertatzen den prozesu bat. Nirekin bi prailek ikasi zuten biologia. Sinestunak izan arren, bazekiten Jainkoak ez zituela egin bizidunak egun diren bezalakoak: Lurra

sortu zuen, baina gerora haiek moldatu ziren.

Eta eboluzioaren gainean beste apuntetxo bat. Kakalardo baten eta pertsona baten arteko desberdintasuna da, haiek oskol gogor bat "aukeratu" zutela haien ingurunean bizitzeko, eta guk



garun garatu bat (" " kakotx artean idatzi dut, eboluzioan ez baita ezer helburu zehatz batekin gertatzen). Kakalardoaren artean espezie pila bat dago; gizakiaren taldean (Homo generoa) espezie bakarra dago: gu geu, Homo sapiens sapiens, gainerakoak desagertu egin dira. Hortaz, agian garuna ez da guk uste bezain asmakizun ona, ezta?

Bizi lasai.

Txintxu (alaba)

Adin txikiko etorkinen zentroa

Aurreko Orri Informatiboan esan bezala, zentroaren kanpo segurtasunaren eta kokapenaren inguruan zehaztasun falta nabari zela eta, sinadura bilketa egin zen. 400 sinaduratik gora bildu ziren eta Diputazioan aurkeztu. Diputazioak erantzuna idatziz bidali zuen. Zentrotik kanpoko segurtasuna, autoritate publikoen esku dagoela adierazi zuen eta kokapenaren inguruan ez zuen ezer azaldu. Beste 2 idatzi ere aurkeztu ziren, Añorgako eta beste zenbait zentrotan izandako arazoak aipatuz. Hauen inguruko erantzunik ez da jaso.

Bestalde, Urtarrilean Herri Batzarra ere egin zen, bertan Diputazioko arduraduna, Joxi Intxausti, eta zentroko arduradunak izan ziren. Batzar honetan, berriro ere, segurtasunaren eta kokapenaren inguruko kezka adierazi ziren eta segurtasunaren inguruan, zentroa kudeatuko duen enpresak, Urgatzik, 24 orduko ardurak izango duela adierazi zuten. Kokapenari dagokionean ez zen erantzun argirik izan. Hala ere, argitu zuten, hasierako proiektutik zenbait aldaketa eman direla. Besteak beste, eta nagusia, Urgentziazko zentroa izatetik zentro egonkorra izatera pasa dela. Hau da, Igeldora etorriko diren haurrak 14 urte ingurukoak izango direla eta 18 urte bete arte bertan egongo direla. Bitarte honetan, heziketa orokorra jasoko dute gizarteratzeko prestaturik. Batzarrean azaldu zuten beste puntu bat: Igeldoko zentroarekin batera, beste zentro bat ere martxan jarri berria da, arazoak dituzten haurrak bertara bideratzeko.

Honetaz guztiaz gain, Azpetiko zentroa bisitatzeraz joan ziren batzordeko kide batzuk eta Legorretako alkatearekin ere hitz egin zen. Bi herri hauetan Urgatzik kudeatzen dituen zentroak daude eta oraingoz inongo arazorik ez dutela izan azaldu zuten. Azken berriei dagokienez, jada martxan hasi da Igeldoko Zentroa. 9 haur etorri dira eta hezitzaile taldea ere bertan da. Jarraipen batzordea osatu da (zentroko zuzendariarekin eta herriko zenbait kideekin) eta lehendabiziko bilera ere egin da. Bertan, herriaren eta zentroaren arteko harremana landuko da eta edozein arazo izanez gero, batzorde horretan aztertuko da. Azkenik, zentroko zuzendariak Igeldoko zentroa ezagutzeko eta bertan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko gogoia dutela adierazi dute eta pixkanaka, elkar ezagutzeko herriko kide izan nahi dutela. Beraz, ONGI ETORRI!

Demokraziaren aldeko urrezko botoa nagusi

Jakingo duzuen bezala, martxoaren 1ean EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren. Igeldon, D3Mk lortu zituen boto gehien, 158, hain zuzen ere. Bigarren indarra EAJ izan zen 152 botorekin. Ondoren, PSE-EE 61rekin, atzetik, PP 60rekin, Aralar 56rekin, EA 18rekin, EB 14rekin, UPyD 11rekin eta, azkenik, PUM+J 3 botorekin. Boto zuriak 15 izan ziren eta nulorik bat bera ere ez. 830 herritar zeuden hauteskundeetara deituta eta horietatik 548k hartu zuten parte. Beraz, abstentzioa %34koa izan zen. Aurreko Legebiltzarrerako hauteskundeetako baino handiagoa.

Horrez gain, orain dela 4 urteko datuekin alderatuta, datu orokorretan ikusi ahal izan den efektu bera nabari da herrian ere. PSE-EE eta Aralar igo egin dira eta gainerako alderdiak jaitsi. Horien artean, batez ere, PPK, EAK eta EBK izan dute galera handiena Igeldon.

Dena dela, ez dugu ahaztu behar aurtengo hauteskundeak ez direla normaltasunez joan, hainbat politikaririk kontrakoa esan badute ere. D3M plataforma ilegalizatua zegoen eta beraz, emaitzak erabaki politiko antidemokratiko horrek baldintzatutak izan dira.

	2009	2005
D3M	158	-
EHA	-	196
EAJ	152	207*
PSE-EE	61	39
PP	60	98
ARALAR	56	22
EA	18	207*
EB	14	30
UPyD	11	-
PUM+J	3	-

HAUR TXOKOA

Udalak diru-laguntzaren zati bat (materialarena) eman du eta haur txokoa pixkanaka itxura hartzen ari da. Gainera, zenbait larunbat goizetan Kixmiko kideak espazioa egokitzen ere aritu dira, pintatzen eta txukuntzen. Orain, Udaletxearen erantzunaren zain daude, diru-laguntzaren bigarren zatia noizko izango den jakiteko eta horrekin batera, haur txokoari hasiera emateko!

BADATOR LIGELATURRA!

Urtero bezala, aurten ere literaturlehiaketa martxan jarri du Musikartek. Eta inoiz baino denbora gehiago daukazue Igeldorekin zerikusia duen istorio on bat asmatzeko eta idazteko. Aitzakiarik ez duzue, hortaz. Epe zehatzak eta lehiaketaren oinarriak jakiteko, begiratu herritik zehar banatuta aurkituko dituzuen karteletan. Bestela, deitu 943 313030ra. Sariak zain dituzue!

BADATOZ PAPAARAZIAK!

Urtero bezala, aurten ere argazki-lehiaketa martxan jarri du Musikartek. Hasi kamerak presatzen. Igeldon ateratako lau

argazki aurkez ditzake, gehienez, argazkilari bakoitzak. Informazio gehiago herritik zehar banatuta aurkituko dituzuen karteletan aurkituko duzue. Bestela, deitu 943 313030ra.

IGELDOKO HERRITARREN BEHARREN AZTERKETA

Ikerketa bukatu eta Donostiako Udalean aurkeztu da. Bertan ateratako ondorio nagusienak honako hauek izan dira: Lehenik eta behin, Donostiako Udaletxeak igeldotarren konfiantza berreskuratzea beharrezkoa du, eta horretarako, Igeldoko berezitasunak kontuan hartuz, igeldotarren ikuspegia ulertzen saiatu beharko litzateke.

Bestalde, Igeldorako Udalak bultzatzen dituen proiektuetan berezitasun hauek kontuan hartu beharko litzuke, proiektu hauek igeldotarren beharretara eta benetako interesetara ongi egokitu daitezten. Gainera, igeldotarrek eta udalak adosten dituzten proiektuetan herritarren aholkuak kontuan hartzea ere beharrezkoa da.

Herritarrek adierazitako behar guztien artetik, epe motzera

heldu beharreko gai batzuk azpimarratu dira:

- Errepide nagusia asfaltatzea.
- Sindikatuaren premiako berritzea.
- Eskola Zaharraren kudeaketa.
- Kanposantuaren auzia konpontzea.
- Arlo urbanistikoan, igeldotarren ikuspegia aintzat hartzea.
- Azpiegitura eta ondare arkeologikoaren mantenimendua hobetzea.

Azkenik, Udalak premiako behar hauek konpontzen saiatzeaz gain, igeldotarren konfiantza bereganatzeko, igeldotarrak Igeldorako dituzten proiektuak aintzat hartu beharko litzuzkeela aipatzen da. Horien artean, aspalidanik Igeldoko herritarrek martxan jarritako desanexio prozesuari oztoporik ez jartzea garrantzitsua izango litzatekeela azpimarratuz.

IRTEERA BADATOR!

Apirilak 24,25 eta 26an Hondarribira joango gara! Apuntatzeko eguna: Martxoak 25, 18:00etan Itsas Aurre kultur etxean.

Iragarkiak:

-Masajeak ematen dira-

QUIROMASAJEAK

KIROL MASAJEAK : Barne giharretan sortzen diren oinazeetarako masajeak dira. Bizkarreko giharretako kontrakturantzako, ziatikarentzako, zerbikaletako, dortsaletako, gerriondoko eta kirol lesioek eragindako oinazeak arintzeko egokiak dira.

HESGAILU NEUROMUSKULARRAK: Helburua mugimenduari askatasun osoa ematea da, sistema muskularra biomekanikoki sendatzeko. Hespailu hauek bigarren azal modukoak dira. Odol jarria handitzen dute eta ondorioz, auto-sendatze prozesua bizkortzen da.

DRAINATZE LINFATIKOAK: Masaje suabe eta errepikakorrek izaten dira. Oso lasaigarriak. Zirkulazio txarreko hanka nekatuetan emateko egokiak dira. Zelulitisaren, barizeen, reumatismoaren, hemorroideen, sinusitisaren... aurka oso eraginkorra da masaje mota hau.

Eusebi Olaya

Lasarmendi bidea, 41 IGELDO

TELEFONOA: 646 397 057

MARTXOAK 8
EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ADI EMAKUME!

**BETI LAN TA LAN... BA, FESTARAKO GARAIA ERE IRITSI DUN!
AURTEN ERE GURE EGUNA OSPATUKO DINAGU!**



MARTXOAK 14:
(larunbata)
EMAKUME AFARIA

Non: Etxe nagusi tabernan
Ordua: 20:00tan plazan

ANIMATU ETA AZALDU!
GIRO BIKAINA IZANGO DINAGU!
TRIKITIXA, KANTUA, DANTZA... IAJAJAAAA!!!

**Apuntatzeko, deitu ezan telefono zenbaki
honetara: 608 671 400 (Josune)**



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

